

## Inbertsioa egin izana eta laguntza ordaindu izana justifikatzeko gida

### 6. pizgarri

#### **OHAR OROKORRAK**

- Dokumentu hau informatiboa da soilik eta inbertsioak egin izana behar bezala justifikatzeko gida gisa da baliagarria, eta pizgarri-programen oinarri arautzaileak dira nahitaez bete beharreko dokumentua.
- Inbertsioaren xede den jarduketa burutu ondoren eta onuradunak fase honetan eskatzen diren agiri guztiak eskura dituenen hasi behar da justifikatzeko prozesua.
- Nire karpeta "Justifikazioa" botoiaren bidez, eskabide-orria bete eta eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu.
- Eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu behar dira, eta baliozkoak izan behar dute (osoak eta zuzenak).
- Dokumenturen bat falta bada, edo haietakoren bat baliozkoa ez bada, dokumentazioa zuzentzeko dagokion eskaera egingo du EEEK. Kasu horretan, interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean zuzendu dezala hutsegitea.
- Formatu ez-editagarrietan igo behar dira dokumentu guztiak, hala nola PDF, JPG, eta abar. Ez dira formatu editagarriak onartzen, hala nola DOC edo XLS. Dokumentu guztiak testua pantailan horizontalean bistaratuta eta ahal bada trinkotu gabe aurkeztuko dira.
- EEEK gida honetan zerrendatu gabeko beste edozein dokumentu eskatu dezake, diruz lagundutako obra behar bezala egikaritu dela egiaztatzeko.

#### **EGIN BEHARREKO URRATSAK**

1. Sartu plataforman honako lotura edo link honen bidez:  
<https://www.euskadi.eus/mi-carpeta/web01-sede/es/>  
*Klikatu* "Sartu nire karpeta" eta hautatu identifikatzeko bitartekoa.  
Identifikatu karpeta sartzeko.
2. Hautatu inbertsioa justifikatuko den eta dirulaguntza ordaintzea eskatuko den espedientea.
3. Espedientean sartutakoan *klikatu* "Justifikazioa" atalean.
4. Irekitako leiho berrian, *klikatu* "Aurkeztu dokumentu berria", plataformara dokumentu berri bat igotzeko.
5. Dokumentu gehigarriren bat aurkeztu nahi bada, "dokumentu berria aurkeztu" atalean egin behar da.

## **AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUEN ZERRENDA OSOA**

Hona hemen aurkeztu beharreko agirien zerrenda osoa:

- a. Jarduketak ongi egin direla justifikatzen duen txostena, behin betiko proiektua egin duen eskumeneko teknikari tituludunak —edo, halakorik ezean, obra-zuzendariak, edo, bidezko bada, enpresa instalatzaileak— sinatua, datatua eta emana.  
Informazio horrek honako dokumentazio hau bildu beharko du gutxienez:
  - i. Ekipo nagusien kopurua, marka, modeloa eta potentzia unitarioa.
  - ii. Bero-ponpen kasuan (aerotermita, hidrotermia, geotermita), SPFaren balioa egiaztatu beharko da ekipoaren fabrikatzailearen zehaztapen teknikoaren bidez (eranskin gisa jaso beharrekoa).
  - iii. Erantsitako monitorizazio sistemaren deskribapena, laguntzen oinarri arautzaileen I. eranskineko AI.A1.C atalean adierazitakoaren arabera. 2022ko uztailearen 16a baino lehenagoko eskaeren kasuan, informazioa gailu mugikorraren bidez erakutsi beharko da.
- b. Sorkuntza-elementuak zerbitzuan jartzearen erantzukizuneko adierazpena edo aitortpena, organo eskudunak erregistratua.
- c. Aurreko dokumentua lortzeko aurkeztu den diseinuaren proiektuaren edo memoria teknikoaren kopia (jarduketa tipologiari dagokionaren arabera). 5 kW eta 70 kW bitarteko instalazioetarako, EZ da dokumentua eskatzen.
- d. 1 MW baino potentzia txikiagoko biomasa-tipologiaren eskaeretarako, **azkenean instalatutako ekipoak eskaeran adierazitako berak ez badira edo ez badute jaso, erakunde publiko bat denez eta proiektuak gauzatzeko lizitazio bat egin behar duelako**, behin betiko instalatutako ekipoarentzat, ekipoaren fabrikatzailearen aldetik, erabili behar den erregaiaren energia-eraginkortasunari eta emisioei buruzko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen akreditazioa aurkeztu beharko da, indarrean dagoen Ekodiseinuko Erregelamenduan (dagokionaren arabera, Batzordearen 2015/1185 (EB) Erregelamendua edo Batzordearen 2015/1189 (EB) Erregelamendua) zehaztutakoak baino zorrotzagoak izango direla.
- e. Diruz lagundu daitekeen kostuaren zenbatekoak kontratu txikirako aplikatu beharreko kontratazio publikoko araudian ezarritako zenbatekoak gainditzen dituzenean, eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 31.3 artikuluan aurreikusitako kasuetatik kanpo, laguntzaren azken hartzaileak egiaztatu beharko du, agindu horretan ezarritakoarekin bat etorritik, gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu dituela, eta memoria bat aurkeztu beharko du, hornitzailea eskaintza ekonomikorik onuragarrienean ez dagoenean hautatu dela arrazoitzeko. Modu praktikoan:
  - i. Kostu hautagarria 15.000 eurotik beherakoa bada (BEZa kanpo), ez da hiru eskaintza aurkeztu behar.
  - ii. Kostu hautagarria 40.000 eurotik gorakoa bada (BEZa kanpo), hiru eskaintza aurkeztu behar dira nahitaez.
  - iii. 15.000 euro eta 40.000 euro bitarteko kostu subentzionagarriak, azterketa bat egin behar da, eta bereizi egin behar da hornitzaile batekin kontratu bat dugun edo hornitzaile desberdinekin kontratu bat baino gehiago ditugun.
    - Instalatzaile batekin kontratu bakarra duen proiektua, zerbitzu, hornidura eta obretako berezko prestazioak jasotzen dituen.  
Kontratua hornidura, zerbitzu edo obrena den zehazteko, partida horietatik (zerbitzuak, hornidurak edo obrak) zenbatekorik handiena zein den baloratuko da. Zenbateko handiagoko kontu-sailak zehaztuko du kontratua zerbitzu, hornidura edo obrakoa den.
    - Hainbat kontraturekin eta hainbat hornitzaileekin egindako proiektua, zeinen kontratuetan zerbitzu, hornidura eta obretako berezko prestazioak ematen diren, kontratu horiek modu independentean baloratu beharko dira, eta ez modu globalean.

Horiei guztiei, banan-banan, 15.000 € edo 40.000 €-ko mugak aplikatuko dizkiegu, kasuan kasukoa (hau da, kontratu bakoitzari muga bat ezartzen zaio, batzuetan hiru aurrekontu eskatu behar dira eta beste batzuetan ez).

- f. Egindako jarduketei buruzko eskaeren eta/edo kontratuen azken hartzaileak sailkatutako eta sinatutako zerrenda, halakorik bada, eta haien kopia (onuradunak onartutako eta sinatutako aurrekontua). Kontratazio publikoa egonez gero, laguntzaren azken hartzaileak sinatutako kontratuen zerrenda ziurtatua eta kopia, laguntzaren xede diren jarduerak egiteko, bai eta kontratazio-prozedura frogatzen duten agiriak ere: kontratatzailearen profilaren web-helbidea, pleguak, lizitazio-iragarkiak eta kontratuen formalizazioa, kontratazio-organoaren erabakiak.
- Datu hauek izan beharko ditu, gutxienez: eskaintzailearen izena, eskaintza-zenbakia, eskaintzaren data, kontzeptua, eskaintzaren zerga-oinarria (BEZik gabe), hornitzailearen izena, eskaera-zenbakia, eskaera-data, eskaeraren zerga-oinarria (BEZik gabe), eta eskatutako zenbateko osoa, BEZa barne.
- g. Egindako jarduketei buruz onartutako eta sinatutako eskaeren eta/edo kontratuen kopia, halakorik bada.
- h. Egindako inbertsio hautagarriari dagozkion fakturen eta haien bankuko ordainagirien zerrenda, laguntzaren azken hartzaileak sinatua eta sailkatua, aurkeztutako aurrekontu eta kontratuei erantzuten diena.
- Datu hauek jaso beharko ditu, gutxienez: jaulkitzailearen izena, faktura zenbakia, faktura data, kontzeptua, zerga-oinarria (BEZik gabe), eta zenbateko osoa BEZarekin, ordainketa data, ordaindutako zenbatekoa (BEZarekin).
- i. Egindako inbertsio hautagarriaren fakturen kopia. Aurkeztutako fakturei dagozkien bankuko ordainagirien kopia.
- j. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak dituela frogatzen duen dokumentazioa. Bi agiri horiek bakarrik aurkeztu behar dira eskabidean elkarreragingarritasuna baimendu ez bada, edo zerga-betebeharren kasuan, eskatzailearen helbide fiskala EAetik kanpo badago.
- k. Erantzukizuneko adierazpena edo aitortpena, pizgarrien programa honetan eskatzen den jarduera edo helburu bererako beste dirulaguntza edo laguntza ebatzirik baldin badago, estatuko edo nazioarteko edozein administrazio, erakunde edo entitate publikok emana. Laguntza emateko ebazpenaren kopia aurkeztu beharko da.
- l. Egindako jardueren argazki-erreportajeari buruzko PDF dokumentua, honako hauek barne:
- Ekipo nagusien ezaugarri-plakak.
  - Monitorizazioko softwarearen irudiak edo harrapaketak, non, gutxienez, energia-ekoizpen berriztagarria (egunean, hilean eta urtean) eta dagokion energia-kontsumoa (aldi berberetarako) agertuko baitira.
  - Eguzki-energia termikoko edo biomasako instalazioetarako, ordeztutako instalazioaren argazki-erreportajea gehituko da, lehendik dagoen instalazioa eraisteko dirulaguntza eskatzen bada.
  - Publizitate-kartelaren irudia eskuragarri egongo da EEEn web orrian: <https://www.eve.eus/CMSPages/GetFile.aspx?guid=2e9d7890-7bde-475f-bc0d-a52ab16df4a9>
- m. Laguntzaren azken hartzailearen informazioa eta Interneteko gunerako esteka, baldin eta laguntzaren azken hartzaileak Next Generation funtsen edo Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren bidez lortutako laguntzaren berri emango badio jendeari. Dokumentuan sartu beharko da web-aren esteka eta publizitate-kartela erakusten duen pantaila-argazkia. Interneteko gunerik ez badago, dokumentu batean adierazi beharko da. **Betebehar hori ez zaie aplikatuko pertsona fisikoak diren eskatzaileei.**

- n. Lotutako transakzio guztietarako (diru-sarrerak eta ordainketak, hala badagokio, laguntzen sarrera, hornitzaileei egindako ordainketak eta abar barne) kontabilitate berezia edo banatuta dagoela frogatzen duten agiriak). Horretarako, proiektu horretarako Liburu Nagusiko kontuen kopia aurkeztu behar dute. **Betebehar hori ez zaie aplikatuko pertsona fisikoak diren eskatzaileei.**
- o. Nahitaez, 1.000.000 eurotik gorako kostu hautagarria duten proiektuetarako, justifikazio kontua emango da, kontu-ikuskatzailearen txostenarekin batera, RGSen 74. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- p. Eraikinaren edo etxebizitzaren energia-ziurtagiria, jarduketaren ondoren, eta erregistroaren justifikazioa.
- q. 100 kW-eko potentzia nominala gainditzen duten jarduketetarako, dokumentazio eguneratua aurkeztu behar da, osagaien jatorriari eta ezaugarriari, proiektuaren eraginari eta kalte nabarmenik ez egiteko printzipioari dagokienez, azkenean burutu behar den jarduerarako. EEEren web orrian deskarga daiteke, esteka honetan: <https://www.eve.eus/CMSPages/GetFile.aspx?guid=0f87c12f-cc33-40e0-a07d-c87807a4aabe>

100 kW-etik beherako jarduketetarako, azken jarduketaren (DNSH) erantzukizuneko adierazpena edo aitortpena. EEEren web orrian deskarga daiteke, esteka honetan: <https://www.eve.eus/CMSPages/GetFile.aspx?guid=dd557f7e-4e3d-4fbe-8c36-17067d9face8>

## **ZALANTZAK ARGITZEA**

- Onuradunen eskura jartzen dira telefonoa eta helbide elektronikoa, haiekin harremanetan jartzeko, agiriak aurkezteko prozesuan arazorik edo zalantzarik izanez gero.  
Telefonoa: 946.620.600  
Email: [gestionayudas@eve.eus](mailto:gestionayudas@eve.eus)